



**2023KO ABENDUAREN 4KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko abenduaren 4an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko azaroaren 20an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 93 zenbakidun fakturen zerrenda, BERROGEITA BI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU euro ETA BI zentimokoa (42.653,02 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- **Euskara ikasten ari direnei.-**

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 347 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

IV.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-



Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Lemniskata elkarteari.-

Lemniskata elkarteari 2.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Dirulaguntza 2023ko aurrekontuaren 481.03.334.00 partidatik ordainduko da.

- Zawopi aisialdi taldeari.-

Talde hau eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honi Gabonetako ekintzak aurrera eramateko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Hau honela izanik, Zawopi aisialdi taldeari 2024ko urtarrileko gabonetan errege kabalgata eta astotxo eguneko antzezlan antolatzekeo 2.500 €-ko dirulaguntza ematea onartu du Tokiko Gobernu Batzordeak.

Dirulaguntza 2023ko aurrekontuaren 481.09.334.00 partidatik ordainduko da.

- Jundajo txaranga taldeari.-

Lazkaoko San Migeletako sagardo dastaketa egunean 3 txarangen bilkura antolatzegatik ematea erabaki zen dirulaguntzaren bigarren zatia, 761,50 €-koa hain zuzen ere, orain ordaintzea.

Dirulaguntza 2023ko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.

V.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- San Benito Ikastolari.-

Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2023an izenpetutako hitzarmenean adostutako dirulaguntzaren bigarren zatia, hau da, 17.000 € ematea mantentze gastuetarako eta 11.500 € ematea jarduerak aurrera eramateko.

Ordainketak aurrekontuko partida hauetatik egingo dira:

- 1 481.01.326.00 partidatik, mantentze gastuetarako.
- 1 481.02.323.00 partidatik, jardueren gastuetarako.

VI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-





Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei hirugarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
GERRIKO SL	200 €
GERRIKO SL	180 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.125 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	580 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	420 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	310 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	225 €
RICARDO IZQUIERDO SANTAMARIA	455 €
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	1.000 €
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	520 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	355 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	740 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	250 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	170 €
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	130 €
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	90 €
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	150 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	75 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	1.215 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	335 €
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	30 €
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	65 €
AMAIA CARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	70 €
ARTANO ETA LORENA SL	2.330 €
ARTANO ETA LORENA SL	95 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	450 €
FONTANERIA JESUS GOMEZ SL	40 €
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	1.510 €
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	230 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	265 €
ERROTAUNDI	145 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	190 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	460 €



URTEAGA PENTXUAK SL	765 €
OLATZ RISCO URSUA	105 €
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	680 €
MIGUEL MARI ARAKAMA (HARATEGIA)	1.015 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	105 €
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	3.060 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	1.735 €
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	1.420 €
GUZTIRA	23.290 €

Ordainketa Udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VII.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei zortzigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Aitor Iztueta Barandiaran	525 €
Aitor Iztueta Barandiaran	35 €
Euxebio Garmendia Altuna	795 €
GUZTIRA	1.355 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

- 2023ko Basherry eguneko dietak ordaintzea.

Irailaren 24an, San Migeletako jaien barruan, XI. Basherry eguna ospatu zen. Bertan, 12 ekoizle bildu ziren eta bakoitzak ekarri zituen hitzartutako animaliak eta jateko produktuak. Honen arabera, honako dieta hauek ordaintzea dagokie:

Baserria	Zenbatekoa
Atxubieta	700 €








Imaz Berri	630 €
Intxaurrezpi	900 €
Garadi	450 €
Intzartzu	791,20 €
Otermin Txiki	735 €
Zeberione	540 €
Borda Berri	564 €
Iztueta	507 €
Larraitz Etxe	830 €
Iztueta Garakoa	150 €
Altune	540 €
GUZTIRA	7.337,20 €

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdietan eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.




LAZKAOKO
UDALA